



Aurkezten du:

Enperadorearen jantzi berria

Iñigo Casalirena



♪ Gida didaktikoa ♪

Aurkezten dizugun gidak ikasleei musika adierazteko modua dela ulerrarazteko erabil daitezkeen tresnak eskaintzeko helburua du, bai eta "Enperadorearen jantzi berria" pixka bat hobe ezagutzeko ere.

Irakasle bakoitzak bere irizpideen arabera erabil dezan pentsatua dago.

Umeei gozatzeko duzun helburuan material hau lagungarri izango zaizula espero dugu, bai eta haiek "Enperadorearen jantzi berria" opera ikasleentzat baliagarri izatea.

Aurkibidea

1.- Musikagilearen gutuna. Iñigo Casali

2.- Pertsonaiak

2.1.- Ahotsen sailkapena

3.- "Nafarroako Ganbara Opera orkestra"-ren musika-tresnak

3.1.- Biolinetik tinbalera

4.- Argumentua

5.- Opera ikusten dut

6.- Musika pasarteak

♫ Apaindu edo ez apaindu...Tximua beti tximu
(1' 40' ` `)

♫ Oropeliako gorazarrea (1' 14' ` `)

7.- Operarekin jolasean

7.1.- Gogoratzen duzu?

7.2.- Hizki zopa goxoa!

7.3.- Gizonezkoen ala emakumezkoen ahotsa?

7.4.- Presta itzazu geziak

7.5.- Hitz bihurriak.

1.- Musikagilearen gutuna

Kaixo neska-mutilak:

Íñigo Casali naiz, *Enperadorearen Jantzi Berria* operaren musikaren. 1972ko urriaren 20an jaio nintzen. Opera hau da musika ipini diodan hirugarren ipuina. Lehen *Hamelingo txirularia* izan zen. Gero *Hansel eta Gretel* ipuinari jarri nion, eta azkenik *Enperadorearen Jantzi Berria* musikatu dut. Hamabi urte nituela hasi nintzen konposatzen. Lehen melodia errazak, gero gauza korapilatsuagoak, eta pixkanaka konposizioaren munduan sartzen joan nintzen hau bezalako lanak egin arte. Espero dut zuek ondo pasatzea. Uste dut oso ipuin dibertigarria dela, eta espero dut musikak hobeto pasatzen laguntzea.

Pentsatuko duzue musikagintzan jarduten dut. Konposatzeaz gain, abesbatza batean abestu, moko-txirula jo eta kontserbatorioan eskolak eman ere egiten ditut, moko-txirulari buruzkoak, hain zuzen. Ikastetxeko txirula bezalakoa da, baina egurrezkoa eta gozatua. Musika-tresna horrekin abesti eta pieza eder pilo bat jo daiteke, kontrakoa badirudi ere, eta nik irakasten dut nola jo, berarekin musika sortzeko.

Musikan anaia zaharrari esker hasi nintzen, berak txirula jotzen zuen, eta niri asko gustatzen zitzaidan berari entzutea, horregatik neuk ere ikasi nahi nuen. Lehen eskolak berak eman zizkidan, pazientzia ederrarekin. Geroago, ikastetxeko abesbatzan sartu nintzen: "Escolanía Loyola" izenekoa. "Alto" gisa abesten nuen. Abesbatza honetan asko ikasi nuen, eta batez ere publikoaren aurreko musika interpretazioarekin lehen harremana eduki nuen, hots, musikarekiko grina piztu zitzaidan. Are geroago, hamasei urte neuzkanean, erabaki nuen musikaria izan nahi nuela, eta gogoz ekin nion pianoa, solfeoa, txirula,... ikasteari. Izan ere, unibertsitatean musikologia ikasketak egin nituen. Hor musikaren historia (musikagileak, lanak, estiloak,...) ikasten da. Oraindik ere musika ikasten jarraitzen dut. Musikari bat beti ari da ikasten. Musika, gauza gehienak bezalaxe, agortezina da. Batek bizitza osoa eman dezake ikasten, eta ez du inoiz amaituko. Ni orain kantua kasten ari naiz, ahotsa hobeto ezagutzeko eta operak hobeto konposatu ahal izateko. Horri esker espero dut hurrengoa hobea izatea, eta hurrengoaren hurrengoa are hobexegoa izatea... Orain opera berri bat estreinatu behar dugu *Ali Baba eta 40 lapurrak* izeneko ipuinean oinarrituta.

Espero dut *Enperadorearen Jantzi Berría* gustatzen bazaizue hori ere inoiz zeuek ikustea eta gustuko izatea.

Bo, utzi behar zaituztet. Uste dut hitz hauekin pixka bat gehiago neu ezagutzeko aukera izan duzuela.

Agur bero bat guztiei, eta ondo pasa.
Íñigo Casalí.

2.- Pertsonaiak

▪ Luccia	Komediantea (Colombinan)	Sopranoa
▪ Ferruccio	Komediantea (Arlequinen)	Tenore komikoa
▪ Badulio	Oropelia-ko erregea	Tenorea
▪ Petulia	Ama erregina	Sopranoa
▪ Pierrette	neskamea	Kontraltoa
▪ Roscio/Soldado 1	Morroia/Soldadua	Baxua
▪ Scapin/Soldado 2	Morroia/Soldadua	Tenorea
▪ Sirolé	Chantilly-ko enperatriza	

2.1.- Ahotsen sailkapena

Operan 6 ahots mota ezberdin bereizten dira ohiko ahotsen artean. Hiru ahots emakumezkoentzat eta beste hiru gizonezkoentzat. Jarraian, horien deskribaketa txiki bat ikusiko duzu.

AHOTS MOTA	EMAKUMEZKOA/GIZONEZKOA	DESKRIBAPENA
Sopranoa	Emakumezko ahotsa	Giza ahots altuena da
Mezzo-sopranoa	Emakumezko ahotsa	Tarteko emakumezko ahotsa da
Kontraltoa	Emakumezko ahotsa	Soinu sakonak egiteko gauza den ahotsa da, adierazpen dramatiko handikoa
Tenorea	Gizonezko ahotsa	Gizonezko ahots altuena da
Baritonoa	Gizonezko ahotsa	Tarteko gizonezko ahotsa da
Baxua	Gizonezko ahotsa	Gizonezko ahots baxuena da

3.- "Nafarroako Ganbera Opera" orkestrako musika-tresnak

Hauek dira Nafarroako Ganbera Opera orkestrak dituen musika-tresnak

1. biolina
 2. biolina
- Biola
Biolontxelo
Kontrabaxua
Tronpeta
Oboea
Fagota
Txirula
Perkusioa

3.1. -Biolinetik tinbalera.

Enperadorearen jantzi berria orkestra talde kamelistikoa da, hau da, orkestra txikia da Barrokoan egiten zen bezala, opera girotua dagoen garaia.

Musika-tresnak aurkeztuko dizkizuegu pixka bat hobe ezagut ditzazuen.

Biolina:

Hari musika-tresnen artean txikiena da. Lau soka ditu eta bostunetan banatuta dago, baxutik altura. Sol klabean idazten da

Biola:

Gaur egun ezagutzen dugun biola XVI eta XVII mende artean sortu zen. Biolina baino pixka bat handiagoa da. Lau soka ditu eta do-sol-re-la notekin jartzen da tonuan (baxuenetik altuenera bostunetan banatuta). Irakurketa musikalerako hirugarren lerroko do klabean eta bigarreneko solen (notak oso altuak direnean soilik) irakurtzen da.

Txelo:

Biolontxelo edo txelo harizko musika-tresna da, biolinaren familiakoa eta neurritz, biolaren eta kontrabaxuaren artean dago. Arkua eta sokak igurtziz jotzen da, eta musika-tresna biolontxelo-jolearen hanken artean helduta egoten da.

Kontrabaxua:

Kontrabaxua hari familiako musika-tresna da, tamaina handiko musika-tresna. Lau soka eduki ohi ditu gehienetan, eta goranzko laudunetan afinatzen da (Mi-La-Re-Sol 4. sokatik, baxuena eta 1. altuena) nahiz eta botekoak ere badiren. Horietan bosgarren soka laugarren soka baino do edo si baxuago afinatzen da.

Zeharkako txirula:

Zeharkako txirula airezko musika-tresna da. Txirula jotzen duenari txirulari esaten zaio. Txirulak ez dira airezko musika-tresnen familiakoak, egurrezko musika-tresnen familiakoak dira, antzina material horrekin egiten zirelako. Baita haien doinua musika-tresna haiekin lotzen delako ere. Bere ohiko erregistroa hiru zortzidunekoa da eta do₄ notan hasi (pianoaren

erdiko teklaren doinua, anglosaxoi nomenklaturan C3 esaten zaio) eta do7 notan bukatzen da.

Oboea:

Oboea (frantseseko hautbois hitzean du jatorria, "egur altua, zorrotza") agur aire familiako musika-tresna da. Oboea jotzen duen musikariari oboista esaten zaio. Ahoaren erabilera zailak eta airearen presioak tinbre eta dinamika zabala azaltzeko aukera ematen dio musikariari. Tronparekin batera, oboea jotzeko zailenetakoa den musika-tresnatzat jotzen da.

Fagota:

Fagota egur-aire familiako musika-tresna da, bi mihi ditu eta oboearen familiakoa da. 156 zm inguruko altura du eta 250 zm-ko luzera. Fagota sortzearen arrazoia aire musika-tresnen soinurik baxuen aldea zabaldu beharra izan zen.

Tronpeta:

Metal airezko musika-tresna da. Aire emateko ahoa dauka eta pistoiek musika-tresnaren notak osatzen laguntzen dute. Barrokoko tronpeta luzeagoa da eta ondorioz altuagoa, gainera, gehienetan ez du pistoirik izaten.

Tinbala:

Tinbala perkusiozko musika-tresna da eta doinu baxua du, gainera kolpe lehor eta erresonatzailleak eman ditzake. Adabakiak zotzaz edo baketa berezi batez emanez erabiltzen da, "tinbalaren baketa" izenekoarekin. Mintz batek estalitako kobrezko pertz batek osatzen du. Afinatu daitekeenez soinu jakinak ematen ditu, musika notak dei ditzakegunak.

4.- Argumentua

Bazen behin Oropelia izeneko erresuma txiki bat, oso erresuma txikia, hain zen txikia antzerkiarentzat ere tokirik ez zuela! Bertako erregea Badulio da, erresuma eta bertako jendeak axolarik ez zion erregea. Ondoan jantzia zegoena izatea besterik ez zuen amesten, dotoreena izatea.

Bi soldaduk Chantillyko Sirolé enperatriza errege ezkongabe baten bila Europa zeharkatzen ari dela iragartzen dute.

Egun batean Luccia eta Ferruccio Oropeliara iritsi ziren. Enperatrizaren inperioko jostunak direla sinestarazi eta atzean gelditu direla kontatzen dute. Gizon gaiztoek behin eta berriz lapurretak egin dizkietela esan eta ezer gabe utzi dituztela ziurtatzen dute. Ezaugarri berezia duen oihal magikoa besterik ez omen daukate: ikusezina den oihala!

Erregeak duen urre guztia eskainiko die jostunek inoiz ikusi ez den jantzirik dotoreena egin diezaioten, horrela Sirolé ezagutu eta hainbesteko dotoreziaz erabat maitemindurik gera dadin.

Nolakoa izango da jantzia? Zer gertatuko da enperatrizak Badulio erregea ezagutzen duenean? Errazagoa izango ote da erregerik gabe bizitzea antzerkirik gabe bizitzea baino? Egon zaitetze adi!

5.- Opera ikusten dut

Opera XVII. mendean sortu zen "camerana fiorentina" inguruan elkartzen zen musikari, idazle eta pentsalari talde baten saiakeraren ondorioz. Ekimenak antzinako antzerki grekoa berreskuratu nahi zuen. Entzuna zutenez, antzerki mota hura ahots bakarrak kantatzen zuen eta antzerki madrigaleskoan berriz, garaian egiten zen antzerki mota polifonikoa izan ohi zen. Motz-motz aktoreek ez zutela abesten azalduko dizuet, itxurak besterik ez zituzten egiten, bere ahotsa abeslari batek baino gehiagok interpretatzen zuen. Horrela egin zen lehenengo opera Claudio Monteverdiren "Favola D'orfeo" izan zen, 1600 urte hasieran aurkeztu zena. Opera hitzak obra adierazi nahi du, horregatik, operaren jatorrian antzerki testua abesten antzetzeko nahia dago.

- Ezagutzen al duzu opera ez den baina abesten den antzerki-lanik?
- Une batez esaten duzun guztia abestua izatea gustatuko litzaizuke? Nola egingo zenuke?

Saia zaitetz klasean guztia 5 minutuan abesten egiten, gustukoen dituzun doinuak erabiltzen. Helburua, irakaslearekin zein ikaskideekin izango duzun harremana abesten izatea da. Horrela egiten da opera. Pertsonaiek testua esaten dute, hori bai, abestuz.

Opera tradizionalak zati zehatz batzuk dituzte: ariak, duoak, abesbatzak, laukoteak, errezitatiboak eta abar. Aria hitzak aire esan nahi du, baina baita melodia edo doinua ere. Opera zati horretan pertsonaiek sentimenduak eta emozioak adierazten dituzte. Ariekin gertakariak gelditzen dira eta errezitatiboekin gertakariak aurrera egiten dute.

- Edozein operako aria aipatzeko gai izango zinateke?
- Lehenago inoiz entzun al duzu hitz horri buruz hitz egiten?
- Ba al zenekien airezko musika-tresnak bi familia ezberdinetan bereizten direla?? Aipa itzazu.

Bila ezazu hiztegian aria hitzaren esanahi ezberdina.

Aria hitzak airea esanahia duenez, airearekin bakarrik hitz egiten saiatuko gara, txistu-hotsaren bitartez adibidez. Saia zaitetz txistu-hotsaren indarra eta intonazioa neurtzen hizkuntza normala balitz bezala. Gogora ezazu pertsonaia ezagun asko izan direla zineman, telebistan eta antzerkian txistu-hotsarekin edo airezko musika-tresnekin komunikatu direnak, klaxona adibidez. Hiru adibide jartzeko gai izango zinateke?

Eskuak erabiliz saia zaitetz soinuak egiten zure ahoaren airearekin. Horretarako elkar itzazu esku ahurrak gurutze forman, pasa itzazu hatzak beste aldera, zabaldu eskuen arteko zuloa, elkartu hatz lodiak eta airea bota hatzen arteko zirrikitutik. Egiterakoan sortzen duzun soinua basoko animalien antzekoa dela ohartuko zara.

Baina aria bat abesteko, errezitatibo bat egiteko, abesbatza bat, bikote bat edo laukote bat ahotsa behar da. Ahotsa da soinean daramagun musika-tresna bakarra. "Enperadorearen jantzi berria" lanean ahots ezberdinak daude. Badulio gizonezko ahotsa da eta tenore lirikoari dagokiona baino ahots pixka bat baxuagoa dauka. **Badulio**<<<<<<

Bere ama, Petulia da eta emakumezko ahotsa du, soprano dramatikoa.<<<<<<< Luccia komediantearen ahotsa soprano liriko arinaren ahotsa da.<<<<<<< Morroietako batek, Scapinek, baritonoaren ahots baxua du. .<<<<<<< Hori da ahotsen sailkapenik ohikoena.

-Bereizten jakingo zenuke?

-Gizon batek emakume ahotsa izan dezakeela uste duzu? Hori posible bada, nola esaten zaio horri?

Ahotsaren anplitudea edo hedadura ikusi ahal izateko, saia zaitetz esaldi bat altuenetik baxuenera egiten saiatzen, eta alderantziz gero. Erabili ezazu esaldi hau: Enperadoreak badauka jantziko duen jantzia.

Entzun ezazu enperadorearen musika eta saia zaitetz ahotsaren arabera pertsonaiak bereizten.

Opera honetan, beste hainbatetan bezala, bada kontzertante izeneko zati abestua. Kontzertante hitz italiarra da eta elkarrizketa adierazi nahi du. Hitza barrokoan sortu zen orkestren sorrerarekin batera eta kontzertuan musika-tresna baten edo zenbaiten artean eta gainerako orkestraren artean sortzen zen harremana azaltzen zuen.

-Ba al dakizu zein den gaur egun kontzertatu hitzaren adiera?

-Ba al dakizu kontzertu hitza nondik datorren zuzenean lanean aritzen den talde baten emanaldia adierazteko erabiltzen denean?

Jarduera interesgarria proposatuko dizuegu jarraian: irakasleak lagunduta, Iñigo Casalíren kontzertante hau interpretatu ezazue. Bertan lau pertsonaiak abesten dute, horietako bakoitzak melodia ezberdinean abesten du eta guztiek batera konposizioaren armonia sortzen dute. Pertsonaiak ezberdinak dira: alaia, marmartia, kuxkuxeroa eta musikaria. Bakoitzak izaera ezberdina dauka. Hasieran bat abesten has daiteke eta gero gainerakoak elkartu. Pertsonaia ere alda dezakezue partitura osoa behin abestu ondoren .<<<<<<

Kanona konposizio kontrapuntuduna da, non ahots batek besteari jarraitzen dion. Umeentzat ezaguna dena ezagutuko duzue seguruenik: "Debajo de un botón, ton, ton, había un ratón, ton, ton,..... Beste kanon bat proposatzen dizugu guk, irakaslearen laguntzarekin Iñigo Casalík zuentzat prestatu duena, ederki pasako duzue. <<<<<<

Amaitzeko, antzerkiaren eta operaren artean desberdintasun ugari daudela argituko dizuegu:

OPERA	ANTZERKIA
Aktoreak abeslariak dira eta abesten dute	Aktoreek testua hitzez esaten dute
Musika zuzenean abesten da orkestra batekin	Musika grabatuta egoten da
Musikak gertakariak zehazten ditu	Musikak gertakariei laguntzen die
Orkestra zuzendaria bertan izatea beharrezkoa da	Ez da beharrezkoa
Muntaketa oso garestia da ekonomikoki	Muntaketaren arabera, merkeagoa izan ohi da

GAURKO OPERA ONENA DA BERA

Gehienetan operetako libretoak idazleek eta dramagileek idazten zituzten nahiz eta batzuetan, konposagileek eurek idazten zituzten. Gehienak bertso bidez idatzi ohi ziren, "Enperadorearen jantzi berria" operan Pablo Valdesek bertsoa eta umorea uztartu zituen, historian zehar hainbat operatan gertatu izan zen bezala. Genero hari genero bufoa esaten zitzaion.

-Ba al dakizu bufoia zer den?

Asma ezazu ikaskideekin errima duten historia laburrak. Adibide honek lagun zaitzake: gaurko opera onena da bera.

Jar zaitetze binaka, batek esaldia hasi beharko du eta besteak esaldia amaitu beharko du errimarekin.

"Enperadorearen jantzi berria" antzezlanaren Dell'Arte Comediaren teknikarekin egina dago. Horrek esan nahi du, aktoreek egiten dituzten mugimenduak XV. mendetik belaunaldiz belaunaldi ikasitakoak direla. Ideia bat izan dezazuen, 4 pertsonai proposatuko ditugu. Pantallone zaharra eta konkorduna da. Pauso motzekin ibiltzen da, besoak angelu zuzen bat osatuz alboetan eta bitartean hatzak gora eta behera mugituz. Beste pertsonaia bat Dottore da, lodia da baina bere sabela artifiziale. Tripa aurrerantz ateraz eta gorputza atzerantz botaz ibiltzen da, besoekin zirkuluerdi bat osatuz

sabelaren gainaldean. Il Capittano, beste pertsonaia ezaguna, militar espainiar harropuz da, pausu bat ematen duen bakoitzean gorputz guztia mugitzen

duena bere hankak ahalbidetzen dioten bezain urrun ailegatuz, gorputz osoaren pisua erortzen uzten duena pausu bakoitzean. Besoak kulunkatzen ditu militarren gisan, aurretik atzera, hanken aurkako mugimendua eginez. Azkenik, Arlechino, besoak zirkuluerditan zabaldua dituen gaztea da, besapeetan pilotak balitu moduan eta eskuak soilik mugitzen ditu oinek aurretik atzerako dantza egiten duten bitartean. "Enperadorearen jantzi berria" badira Dell'Arte Comediatik ateratako zenbait pertsonai. <<<<<<

-Ezagutzen al duzu inor pertsonaia hauen antzera mugitzen dena?

-Zirkuko pailazoak horrela mugitu daitezkeela iruditzen al zaizu?

Jar zaitetze klasean banatuta elkarrengandik metro batera zaudetela. Bakoitzak pertsonaia baten mugimendua aukeratu eta zuek aukeratu ez duzuen pertsonaiaren baten papera egiten duen inor elkartzen duzuenean, pertsonaia elkartrukatuko duzue sorbalda ukituz.

Artearen komediako gizonezko pertsonaia guztiek maskara daramate. Maskarak haien izaera zehazten zuen. .<<<<<<

-Ezagutzen al duzu zineman edo telebistan maskara erabiltzen duen pertsonaiarik? Aipa itzazu hiru.

Orrri batekin egin ezazu maskara bat. Marraztu ezazu lehenengo eta gero eginiezazkiozu bi zulo begietan, bat sudurrean eta beste bat ahoan. Gero lotu ezazu maskara soka batekin. Saia zaitetz maskara izan nahi duzunaren isla izan dadin.

Maskarak, daramanaren nortasuna ezkututzen du. Saia zaitetz klasean galtzerdi garden bat eramaten eta buruan kontuz jartzen. Ikusiko duzu nola desitxuratuko zaizun aurpegia. Gero gorputza oihal eta toaila batekin estali dezakezue eta galtzerdiaren atzean zein ikaskide dagoen asmatzen saia zaitezkete.

OPERARAKO JANTZIA

Badulio erregeak edozein modutan munduan inoiz josi den jantzia lortu nahi du.

-Aipa itzazu janzkeragatik oso gustuko dituzun hiru pertsonaia famatu eta haien janzkera gorroto duzun beste hiru ere aipa itzazu.

-Badakizu moda zer den?

-Inoiz entzun al duzu hondartza nudistei buruz hitz egiten?

Mozorrotu zaitetzte guztiak egun batean zuen gurasoen jantziekin.

Gure opera ez dagoen zerbait ikustean oinarritua dago. Oso erraza den zerbait proposatzen dizugu, ikusi makusi jolasean aritzea... Imajinatzen dut badakizula nola jolasten den. Hala ere, zailago jarriko dugu eta ikusi makusian jolastuko gara ikusten ez diren gauzak asmatu nahian.

Enperadorearen jantzi berria operan, ikusteak eta ez ikusteak garrantzia handia dauka.

Oso ariketa interesgarria jarriko dizuegu orain: gure operako *corte y confección* balletaren musikarekin, mugi zaitetz musikak ematen duen

erritmoari jarraituz eta zure gorputzarekin gauzen edo animalien irudiak sortzen saiatuz. Zure ikaskideek zuk egindakoak asmatu beharko dituzte.

.<<<<<< **ebaketa eta jantzigintza**

Hemen jantzi-tako koloreak galdu dituzten pertsonaia batzuk daude, ia-ia biluzik daudela esan genezake. Jantzi itzazu nahi duzun koloreekin.
<<<<<<<

6.- Musika pasarteak

Jarraian, "Enperadorearen jantzi berria" lanaren musika zati batzuk entzungo ditugu. Entzun adi-adi.

♫ *Apaindu edo ez apaindu... Tximua beti tximu*
(1` 40` `)
♫ Oropeliako gorazarrea (1` 14` `)

Apaindu edo ez apaindu... Tximua beti tximu

♫ ♫ ♫
Horrela ez. Ezta horrela erre.
ezta albotik ere! Horrela ere ez
Ganorarik gabe. Konbentzional
Gaizki baino okerrago.
Esan dizut horrela ere ezetz.

Berdin zaidala, zaindari edo kriminal,
Deabru, kardinal: inauteri bateko mila aurpegi!
Apaindu edo ez apaindu,
Tximua beti tximu.
♫ ♫ ♫
Horrela ere ez. Utz ezazu,
Badakizu ni ez naizela okertzen.
Kapitainez, jeneralez,
Mariskalez, zer axola niri!
Zoratu egin zara.

Berdin zaidala maskara, mozorroa,
Estalkia, karatula, horrela ere ez!
Apaindu edo ez apaindu,
Tximua beti tximu.
La, la, la,.....

Apaindu edo ez apaindu,
Tximua beti tximu.

Oropeliako gorazarrea



- Guztiek: Oropelia! Oropelia!
Lurralde ederrenetik.
Olerkariak iragarri zuten:
Oropeliak mundua txundituko du!
- Roscio: Txundituko du, olerkariak iragarri zuen bezala.
- Guztiek: Txundituko du!
- Scapin: Gizon-emakumeek Oropeliari buruz hitz egiten dela entzungo dute.
- Todos: Gizon-emakumeak!
- Petunia: Eta distira egingo duzu, azkenik, altxor txiki.
- Guztiek: Distira egingo duzu, Oropelia, dir-dir!
- iAgur Badulio, errege ezin hobea!
Gora zure gorputza, zure buru paregabea!
Gora altzairu herdoilgaitzeko zure ezpata!

7.- Operarekin jolasten

7.1.- * Jarduera: Gogoratzen duzu?

Ziur galdera hauei erantzuteko gai zarela!!

Historiari arreta jarri badiozu, ez duzu inongo arazorik izango galderei erantzuteko. Marka ezazu gurutze batekin erantzun zuzena.

1.- Zer da enperadoreari axola zaion gauza bakarra?

- Erresumako kontuetaz arduratu
- Luccia eta Ferruciorekin kartetan jolastu
- Dotoretasunez jantzi

2.- Jantzi bat egin diezaioten, enperadoreak urrez betetako poltsa ematen dio ...

- Ekialde urrunetik etorritako jostun famatu batzuei
- Jostun direla esaten duten iruzurteri batzuei
- Jantzi zoragarriak egiten dituzten jostun batzuei

3.- Enperadorean bi jostun iruzurteriak..... izendatzen ditu

- Erresumako aholkulari
- Inperioko ehule
- Hiriko gobernatzaile

7.2. - 🐦* Jarduera: Hizki zopa goxoa!

Aurki itzazu goitik-behera edo ezkerretik eskuinera ipuineko hitz hauek:

Hizki

Zopa

🐦* Jarduera: Aurki itzazu goitik-behera edo ezkerretik eskuinera ipuineko hitz hauek: **AHOLKULARI, JANTZI, BIHURRI, OIHAL, ARMAIRU.**

L	E	H	I	O	S	A	J	E	L
A	R	M	A	I	R	U	A	F	A
S	A	K	A	R	I	S	N	S	H
S	A	T	I	L	O	P	T	I	I
I	R	R	U	H	I	B	Z	N	O
G	A	R	A	T	E	A	I	E	T
A	H	O	L	K	U	L	A	R	I

7.3. - * Jarduera: Gizonezko ala emakumezko ahotsa?

Lotu gezi batekin ahots mota eta generoa (gizonezkoa/emakumezkoa. Zorte on!!

Tenorea

Mezzo-sopranoa

Gizonezko ahotsa

Baxua

Sopranoa

Baritonoa

Emakumezko ahotsa

Kontraltoa

7.4. - * Jarduera: Presta itzazu geziak!

Lotu geziekin musika-tresna eta izena.



Timbalak



Zeharkako txirula



Biolina



Fagota



Biolontxelo



Oboea



Kontrabaxua

7.5. - * Jarduera: Hitz bihurriak.

Testu hau kopiatzean hitz bihurri batzuek ihes egin dute, bere lekuan jar ditzakezu?

zaplazteko	lapurtu	Oropelia	
dotore	Siolé		jostun
biluzik		Badulio	

Bazen behin erresuma oso txiki bat, oso-oso txikia eta _____ deiturikoa. Bertan _____ zen errege, errege hari erresumak ez zion ardurarik, ezta bertako jendeak ere. Bertako pertsonarik _____-ena izatea zuen helburu bakarra.

Egun batean, Chantillyko _____ enperatriz dotorea senar bila ari zela entzun zuen.

Lucciak eta Ferruciok, _____ inperial zirela esan eta erregeari iruzur egitea erabaki zuten, _____ egin zietela esanez.

Badulio erregeak eta enperatrizak elkar ezagutu zuten eta Sirolek erregea _____ ikusi ondoren, _____ inperiala ematea erabaki zuen.

Erregeak Oropeliako erresuma txikitxoan bizitzen jarraitzeko gogoia izango ote du?